

Hustutako landa-eremua, berreskuratu geinke?


Biztanle gutxi dituen Espainiako udalerriak –Illan de Vacas- 3 biztanle ditu gaur egun, Estatistikarako Institutu Nazionalaren azken erroldaren arabera. Dana dala, logikak herri berezi honen kasua ezohikoa dala pentsatzera bultzatu bagaitez be, benetan egoera kontrakoa da eta, Illan de Vacasen lez, beste makina bat herritan biztanleriak behera egiten dihardu oso bizkor. Demografiaren atzerakada nabarmena erakusten dauan testuinguru honetan, jaiotza-tasaren etenbako beherakada, migrazino-mobimentuek dakarren desoreka eta ekonomia-sistema basatia, beste hainbat eragilegaz batera, «hustutako Espainia» deitu ohi dan gertakaria betikotzeko bide dira.

Begirada iraganetik eta orain aldira

«Hustutako Espainia» dalakoaren inguruko mobimentu aldarrikatzailearen hastapenak 2019aren hasieran izan baziran be, aurretik, hain zuzen be XIX. gizaldiaren bigarren erdi aldera, industria-iraultzaren barruan, hasi ziran landa-eremuko lurraldeak husten. Sasoi horretan, beraz, eremu horreetako biztanleak euren etxeak eta horrek beragaz dakarren guztia –ohiturak, adiskideak eta abar luzea- atzean izten hasi ziran. Testuinguru honetan, landa-eremuak hustu egin ziran apurka-apurka eta, ondorioz, probintziako uriburuetan gora egin eban biztanleriak.

Inguruabarrak ikusita, makina bat herritan, eskualdetan eta baita uri txikitari be –esate baterako Teruel edo Soria-gorabehera ugari bizi dabe despopulazinoari, herritarren zahartzeari, aukeren bardintasunari eta oinarritzko zerbitzuak eskuratzeari –esate baterako, medikuaren ikustaldia lortzeko orduan- dagokionez.

Ondorioz, eta Konstituzinoaren 138. Artikuluak espainiar lurraldeko lekuen artean ekonomia-oreka egoki eta zuzena egotea beharrezkoa dala agertzen bada be, gaur egungo egoera helburu horretatik gero eta urrunago dagoala emoten dau, izan be, gaur egun, aurrez aurre dogun lurralde-eredua erabat asimetrikoa, desorekatua eta bidegabea da-eta.



Gogoetarako datua:
Soriako probintziak anbulantzia medikalizatu bakarra dauka larrialdiei aurre egiteko


Iturria: Plataforma Soria ¡YA!

Migrazino jentetsua landa-eremutik urira

2017an, historian lehenengo aldiz, urietan bizi zan pertsona-kopuruak landa-eremuan bizi zana gainditu eban. Honi dagokionez, eta landa-eremutik urtete hori eragiten dauan hainbat elementu –esate baterako, klima-aldaketa basatia eta bere ondorioak, zerbitzuen eskasia edo irakaskuntzarako erakunderik ez izatea-oinarritzat hartuta, ikertzaileek eskuartean dabezan datuen arabera, 2050ean, munduko biztanleriaren %30a baino ez da biziko landa-eremuan –gaur egungo portzentajea %45 dalarik.

Gauzak holan dirala, Espainian lez, mundu osoko makina bat landa-eremu astintzen dauan egoera ondorioztatzen da aitatu barri dan horretatik: egoera latza, non garapena zuzena ez dan eta aukera-desbardintasuna nabarmentzen dan. Honen haritik, eta azken ideia lez, Frantzisko Aita Santuak Nekazaritza-Garapenerako Nazinoarteko Funtsaren Batzordeagaz ospatu eban saioan azaldu eban, landa-eremua astintzen daben arazoei aurre egiteko giltza, “norbanako bakotzak eta alkarte bakotzak bere gaitasunak bete-betean garatzeko aukerak izatea da, holan giza bizitza duina biziz”.

Evolución de la población de la Provincia de Soria



Iturria: Plataforma Soria ¡YA!

Ete dago itxaropenerako aukerarik?

Ikerlari asko, 2050etik aurrera Espainiako udalerririk txikienek lau miloe biztanle inguru galdu leikiela esatean bat badator be, oraindik bada datozen urteetan «hustutako Espainia» dalakoaren erronka konpontzeko lagungarri izango litzateken aukeraren bat edo beste

Aukera-zerrenda zabala da –gure ordezkari politikoez parlamentuak hauteskunde-helburu hutsez maiz erabilten dabena, gainera- eta besteak beste, uri ertainen –askotan ahaztu egiten diran urien-gizarte eta ekonomia bizkortzea nabarmentzen da. Beraz, aitatutako uri horreek gaur egungoa baino bizitasun handiagoa lortuko balebe, txikiagoak diran gertuko herrien mesederako izango litzateke eta honeek, ondorioz, eboluzionatu egingo leukie.

- Azken batean, itxaropenerako aukeraren bat ikusten bada be, landa-eremuen eta uri handien artean lurralde-oreka lortzea, alde batetik, eta aukera-bardintasuna berreskuratzea, bestetik, erronka nagusi lez agertzen dira epe laburrera.

Gehiago jakiteko

- [Revolución de la España Vacía](#) plataformaren «hustutako Espainia» deitutakoaren barri
- Cristianisme i Justicia agerkariak argitaratutako artikulua: [«El plan para la España vaciada»](#)
- Alfa y Omega agerkariaren argitalpena: [«La Iglesia apuesta por llenar de familias la España vaciada»](#)
- [Soria ¡YA!](#) Herri plataformaren inguruko informazioa
- Despopulatutako Espainiaren etorkizunari buruzko alkarrizketa, [«España 2050»](#) egitasmoaren barruan

Ekintzarako proposamenak

- Landa-eremuetan, osasun-arretarena da alderdirik eztabaidagarrienetakoa. Berrikusi Gaztela eta Leoneko larrialdietarako unitate medikalizatuen zerbitzuari buruzko irudia. Zer gertatuko litzateke zure lurraldean, larrialdietarako anbulantzia medikalizatu bakarria egongo balitz?
- Ikusi Soriako probintziako biztanleriaren bilakaeraren inguruko grafikoa. Gauza bera gertatzen da zure lurraldean? Zelan jokatu zeinke joera hau aldatzeko?
- Askotan, «hustutako Espainia» deitutakoaren arazoa, bistakoa bada be, oharkabe pasatzen da biztanleriaren zati handi batentzat. Onartu eta nork bere egindako arazoa ete da eta, horregaitik, ia jaramonik egiten ez jakon kontu bihurtu ete da? Egiten ete jat egoerari buelta egiteko deirik?
- Gonbidapen zehatza: gai hau lantzen dauan erakunderen baten web lekura jo eta informazioa jaso. «Hustutako Espainia» dalakoari aurre egiten saiatzen dan hainbat plataforma:
 - a) **Aragoin:** [«Teruel Existe»](#) herri mobimentua
 - b) **Nafarroan:** [Bizirik Gaude alkartea](#)
 - c) **Andaluzian:** [«Jaén merece más»](#)
 - d) **Errioxan:** [Errioxako Auxo-alkarteen Federazioa](#)
 - e) Estatuko erakunde eta plataforma guztiak [esteka](#) honetan

